

M.Uko ikasleek Gaztekutxaren Ikasketa Amaierako Saria jaso dute

2006/11/24

Ikasketa Amaierako Sarien XXX. Edizioa, Gaztekutxak antolatzen duena, ospatu zen Donostian pasa den 2006ko azaroaren 21ean.

Sari hori ikasle gipuzkoarren artean banatzen da; unibertsitateko ikasketak amaitzean Fakultate, **Unibertsitate-Eskola eta lurralde historikoko campusetako Goi Eskola Teknikoetan ikasketa-espediterik onena** duten ikasleen artean, hain zuzen ere.

Kutxaren Ikasketa Amaierako Sariak 1976az geroztik banatzen dira. Sariak **1.350** euro eta diploma dira lizentziatu, *ingeniari eta arkitekto titulazioentzat* eta **1.050** euro eta diploma *diplomatu, ingeniari tekniko, arkitekto tekniko eta irakasleentzat*.

Aurtengo edizioan, guztira, **42 ikasle saritu** dira eta horietatik 12 Mondragon unibertsitateko ikasleak dira; honako hauek hain zuzen ere:

- Ainara Bilbao Eraña, *Automatikako eta Industri Elektronikako Ingeniaria*
- Asier Aztiria Goenaga, *Informatikako Ingeniaria*
- Aitor Martinez Benitez, *Industri Antolakuntzako Ingeniaria*
- Eñaut Arriaga Barreña, *Industri ingeniaria*
- Juan Gabriel Vicente de Arriba, *Telekomunikazioetako Ingeniaria*
- Maitane Aguirre Troncoso, *Industri Elektronikako Ingeniari Teknikoa*
- Maitane Loyola Zubia, *Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan lizentziatua*
- Víctor Gonzalez Calvo, *Enpresa Zientzietan diplomaturia*
- Amaia Alcelay Moyua, *Gestio Informatikako Ingeniaria*
- Irene Santa Maria Azkarate, *Atzerriko Hizkuntzako Irakasle*
- Itziar Sustaeta Zabala, *Enpresari Aplikatutako Giza Zientzietako lizentziatua*
- Pello Akizu Lizarazu, *Hizkuntzen Psikopedagogian lizentziatua*

Halaber, bestetan ez bezala, edizio honetan, hitzaldi bat ere izan zen. Hitzaldia Alejandro Bengoa Gorosabel industri ingeniaria eta Tekniker fundazioko zuzendari nagusiak eman zuen. Hitzaldiaren izenburua **“Teknologia eta haren jatorria”** zen.

